


Euskalduntxarrak



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Hala Bedi Irratiko *Euskalduntxarrak* irratsaioa ekarri du gogora ARGIA aldizkariak Korrikaren testuinguruan. Ikasle gasteitar talde bati, euskara menperatzen ez dutela onartzeak eta akatsez barre egiteak, AEK-ko mikrofono aurrean mingaina askatzeko balio izan dio.

Egitasmo horrek Bilboko zenbait lagun ekarri dizkit gogora: C1 titulua izan arren, mahai-inguru edo hedabide batean euskaraz hitz egitera ausartzen ez direnak; edota B erudian ikasitakoak, den dena ulertu arren, egunerokoan euskaraz esaldi bakar bat ere esaten ez dutenak. Lagun horiek guztiak emakumeak* dira; nire ustez, patriarkatu judukristauan hiru emozio bereziki baldintzatzen dutelako gure subjektibitate:

Lotsa.

Plazandreak zigor bikoitza jasotzen dugu jendaurrean hanka sartzen dugunean, Isabel Valdés *El País* egunkariako genero korresponentsalak Euskal Herriko Unibertsitateko jardunaldi batzuetan azpimarratu duenez. Hanka sartu barik ere, badakigu gure jarduna (eta gorputza) gizonena baino gogorrago epaituko dela. Emakumeek hedabideetan duten partaidetza eskasari buruz ari zen Valdés; aditu edo tertuliakideak aurkitzeko zailtasunez. Ez da kasualitatea Ana Botellaren “*relaxing cup of café con leche*” pasa izana

historiara, eta ez edozein gizonezko politikariren ingeles kaskarra.

Errua.

Deigarria iruditzen zait: gogoan ditudan lagun horiek konplexu gutxiago dituzte ingelesa lardaskatzeko orduan. Zer gertatzen zaie euskararekin? Nago kulpak baduela zerikusia. Euskara da gure herriko hizkuntza, euskaldun egiten gaituena, menperatu beharko genukeena. Gure buruari egurra ematea ez da lagungarria.

Autoexijentzia.

Aizpea Otaegi eta Jaime Altuna ikerlariak azaldu digute andreak direla euskaltegiatiko ikasle gehienak eta, aldi berean, gizonen baino autopertzepzio negatiboagoa adierazten dutela euskararekin duten harremanaz galdetzen zaienean. Uxue Alberdik *Kontrako ezta-rritik* liburuan izendatutako zapalkuntza patriarkalaren mekanismoen artean ere nabarmentzen da emakumezko bertsolariak sentitzen duten “autoexijentzia suntsitzailea”.

Gatx Eizaguirre Agousen artikulua akademiko batean irakurri dut hurrengo gogoeta: “Sentsazio fisiko zein emozioen azterketa interesgarria izan liteke hizkuntza antropologiaren eta antropologia feministaren arteko uztarketarako, esaterako, lotsa. Euskal Herriko

testuinguruan euskaraz mintzo diren zein pertsona edo kolektibok sentitzen dute erdaraz aritzean lotsa? Euskaraz ikasten ari diren zeintzuk subjektuk sentitzen dute lotsa? Euskaraz ez dakiten zein pertsonak sentitzen du euskaraz ez jakiteagatik? Nolako da lotsa hori gorputzean eta zein ondorio ditu? Isiltasunarekin lotzen al da? Lotsa horrekin agentzia ariketarik egiten al da? Lotsa horiek nola lotzen dira genero-, klase-, arraza-desberdinkeriekin?...”

Nire Kataluniako bikotekide bolle-
ra eleanitzak euskaltegiako mintzamen proba guztiak suspenditu ditu. Zer lotura dago ahalduntzearen eta mintzamen proben emaitzen artean? Nork hartzen du gehiago hitza mintzapraktiketan? Ezagunen batek aitortu dit ez dela BIRAKO Berbalagun feministara gerturatzeko lotsa ematen diolako, maila nahikorik ez duela uste duelako. Zer egin daiteke euskalduntze prozesuetan hau guztia aintzat hartzeko?

Ez dut erantzunik, baina euskalduntzarren filosofia zoragarria iruditu zait umorearen bidez emozio horiek lantzeko. Baita La Furia raperoaren txioa ere: hemendik aurrera euskaraz arituko dela, hanka sartu arren, “eta ez gus-tatzen bazaizu ba ahal dozue *comerme todo el coño*”. ●